

## HELDUEN HITZA PERIGORD

### 2019ko IRAILAREN 16tik 19ra

---

#### ASTELEHENA, 2019ko IRAILAK 16: DONOSTIA – SARLAT (441 KM)

Aurkezpena, 08:00etan, Donostiako autobus geltokian, Sarlaterako bidea hartzeko. Iritsiera.

**BAZKARIA** hitzartutako jatetxean.

**Sarlat**, Périgord Noir-eko hiriburua, zuhaitzez betetako eremu baten erdigunean dago, Dordogne ibaiaren haranetik hurbil – Akitaniako eskualde handiaren ekialdean.

Arratsaldean, bertako gidariarekin elkartuko gara, 2 orduko bisita egiteko:

Sarlat izenak berak gastronomiaren eta kulturaren plazerrak ekartzen ditu gogora. Erdi Aroaz geroztik historia aberatsa izan duelako da ospetsua munduan. Mendeen joanean ondare bikaina gorde du.

Era horretara, Sarlat izan zen babesteko plan baten onurak jaso zituen lehenengo hiria Frantzian, Malraux Legeari esker (1964).

Arkitekturaren alorrean duen kalitatearen erakusgarri da Ville d'Art et d'Histoire (Artearen eta Historiaren Hiria) sailkapena. Sarlaten dago, halaber, monumentu historikoen edo sailkatuen kontzentrazio handienetako bat metro karratuko.

Erdi Aroko kalekale eta plaza eguzkitsua giro atseginez beteak egoten dira azoka egunetan. 1928. urteaz geroztik, zinemako ekoizle ugari hautatu dute inguru hau beren film historikoetako agertoki gisa.

Denbora librea. Itzulera hotelera. Afaria zein bere aldetik, hotelaren inguruan dauden jatetxe ugarietan. Ostatua.

#### ASTEARTEA, 2019ko IRAILAK 17: SARLAT – BEYNAC- ROQUE GAGEAC-DOMME-SARLAT (50 KM)

**Gosaria**, eta ondoren Dordogneko Bailarako bidea hartuko dugu, gidariarekin. Sarlatetik 10 km-ra, Dordogneko labarretan, herri ederrenetako bat ezagutuko dugu: **Beynac-et-Cazenac**, ezaguna bertako Gaztelu ikaragarriagatik. Bertan gertatu ziren, halaber, gordelekuko Jaunen (Frantziako erregeen aliatuak) eta Castelnauako Gazteluko jaunen (Ingalaterrako Erregearen aliatuak, Plantagenetarrak) gerra basatiak.

Ibaia, herria eta gaztelua: hori da Beynac-en sustraietatik gaur egun arte biltzen duen hirukote magikoa.

Beynac-eko Gazteluak xarma berdingabea du, eta horixe da inguruan ondoen zainduta dagoen eta ospetsuenetako bat den herria. Erdi Aroko egitura du (XII. mendekoa), Dordogne ibaia ikusten da bertatik, eta herria menderatzen du, ibaiaren eskuineko aldean.

1944ko otsailaren 11n Monumentu Historikotzat hartu zuten gaztelua.

**Roque Gageac** aldera jarraituko dugu bisitarekin. Frantziako herri ederrenetakotzat hartua, arroilen eta Dordogne ibaiaren artean kokatuta dago. Kale estu eta txiki askok arroilara eramaten gaituzte, eta ibaiaren ikuspegi ezin ederragoaz goza liteke bertatik. Elizaren alboan, lorategi exotiko ikusgarria dago: palmondoak, platanondoak, agabeak, pikondoak, kaktusak... hazten dira bertan. Herria ezagutzeko modurik onena, ontzi ospetsuetako batean ibaian barrena joatea da. Dordogne ibaian barrena paseatuko dugu.

**Bazkaria** hitzartutako jatetxe batean.

Arratsaldean, irteera Domme herrira. "Perigordeko akropolisa" esaten zaio. Denbora librea herri hau ezagutzeko. Oso herri alai da, xarmaz betea eta oso abegitsua.

Gotorleku-herri bat da, Dordogneko harana menderatzen duen arroila baten gainean. 1283an eraiki zuen herri txiki hau Felipe Ausartak, Dordogneko harana zaintzeko helburuarekin. 1588an Geoffroi de Vivanssek bereganatu zuen hiria eta orduan etorri zen herriaren gainbehera; edonola ere, XVII. mendean berreskuratu zuen berriz ere edertasuna eta baita oparotasuna ere, merkataritza-jarduera ospetsuari esker.

Antzaren edo ahateen landetxe batera joango gara bisitan, eta <<foie gras>> ospetsua dastatuko dugu.

Sarlatera itzuliko gara. Afaria zein bere aldetik ,eta, ondoren, ostatua.

#### [ASTEAZKENA, 2019ko IRAILAK 18: SARLAT- ROCAMADOUR- SIMA PADIRAC-SARLAT \(130 KM\)](#)

**Gosaria**, eta, ondoren, gidarekin elkartuko gara **Rocamadour-era** abiatzeko; hiri sakratu gisa eta erromes gune aipagarria gisa da ezaguna. Kareharrizko arroila baten gainean, Alzouko arroila menderatzen du dotoretasunez. Frantziar bisita gehien dituen lekua da, Saint-Michel mendiaren ondotik. Elizen plazara eramaten duten 216 eskailerak igo ondoren, erromesak eta bisitariak Rocamadourreko zazpi santutegietara joaten dira. Horien artean nabarmentzekoak dira Notre-Dame kapera, Saint-Sauveur basilika eta Saint-Michel kapera.

**Bazkaria** hitzartutako jatetxe batean.

Padiraceko leizera abiatuko gara, Rocamadourretik 8 km-ra. Frantziako leize nagusia da, eta Europako ikusgarrienetako bat. Lurpeko ibaitik egingo dugu bisita, barrunbe labirintoan barrena; Grande Pendeloque ikusiko dugu, 60 metro altu den estalaktita erraldoia.

Itzulera Sarlatera. Afaria zein bere aldetik, eta ostatua.

#### [OSTEGUNA, 2019ko IRAILAK 19: SARLAT-ST EMILION-LIBOURNE-DONOSTIA \(450 KM\)](#)

**Gosaria** hotelean eta irteera Saint Emilionera.

Bisita bertako gida batekin ordubete eta 30 minutuz: VIII. mendean herria sortu zenetik 1789ko Frantziako Iraultzaraino, eta tartean britainiarren nagusitasuna. Saint-Emilionen historia aberatsa ezagutzeko aukera izango dugu, monumentu nagusien bitartez: <Terte > edo kale maldatsua, klaustroa, hiriko atea, gotorlekuak eta Saint Emilionekeo lurpeko monumentuak.

**Bazkaria** jatetxean.

Irteera Libournera; han kafe bat hartu, eta paseo bat hiri ederrean eta bertako plaza arkupetuan barrena.

Irteera Donostiara.

**BIDAIAREN ETA GURE ZERBITZUEN AMAIERA**

**PREZIOA PERTSONAKO, GELA BIKOITZEAN. GUTXIENEZ 40 LAGUNEKO TALDEA**

**541€**

**Bakarkako gelaren osagarria: 110 €**

**Gutxienez 35 laguneko taldearentzako osagarria...20€**

**Gutxienez 30 laguneko taldearentzako osagarria...40€**

**PREZIOAN HONAKOAK SARTZEN DIRA:**

- Autobusa ibilbide osoan, Donostiatik.
- 03 gaueko egonaldia, HOTEL MONTAIGNE-n 3\* (Sarat Perigord Noir) .
- Mantenu erdian (*Ez dira edariak sartzen*). Gosariak hotelean (Buffet hotza) eta bazkariak jatetxeetan (sarrera 1 + plater nagusi 1 + postre 1)
- Bisita gidatua Sarlaten bertako gidariarekin (gutxi gorabehera 2 ordu oinez)
- Bisita gidatua egun osoz Beynac , Roque Gageac (itsasontzian ), Domme, Rocamadour eta Padiraceko kobazuloan.
- Bisita gidatua Saint Emilionera, lurpeko 4 monumentutara sarrera (1 ordu eta 30 minutu)
- Irratigidak Hifi audio digitalarekin, ez du ez zaratarik ez interferentziarik
- City tax barne
- Bidaia aseguru
- Eskupekoak

**IZEN-EMATEA:**

- Aurkezpen hitzaldia otsailaren 7an, 17:00etan (5 PM) Topalekun (Pagoa Aretoa)
- 100 €-ko seinalea pertsonako otsailak 14 baino lehen, banketxeko transferentzia bidez, Helduen Hitzaren kontu honen bitartez: Laboral Kutxa ES 14 3035 0060 410600113885

**ORDAINKETAK:**

- 150 €-ko gordailua, apirilak 1 baino lehen
- Azken ordainketa abuztuak 25 baino lehen
- Ordainketak banketxeko transferentzia bidez, Helduen Hitzaren kontuaren bitartez: Laboral Kutxa ES 14 3035 0060 410600113885

**HARREMANETARAKO:**

María Jesús Leria: [hhviajesmjesusleria@gmail.com](mailto:hhviajesmjesusleria@gmail.com) 674130270 (astel.-ostir. 19:30-21:30)